

Egoeraren Azterketa



Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

BPGa murrizten ari da

Soldatapeko 80.200 enplegu gutxiago orain dela urte bat baino

HEH, Grezia eta Espainia, langabezian buru

Aldi baterako kontratuak gero eta gehiago dira

EEE-k jotako langileen kopuruak gora egin du urte batean

Langabeen %45ek ez du inongo diru-saririk jasotzen

Prezioak gora ari dira

Hego Euskal Herriko (*) lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

	DATUA	ERREFERENTZI ALDIA	12 HIL. LEHENAGO
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA (**)			
JARDUERA TASA (%)	74,9	2012ko III. HIRUHILEKOA	75,7
JARDUERA TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	77,6	2012ko II. HIRUHILEKOA	77,4
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	1.124.000	2012ko III. HIRUHILEKOA	1.205.500
SOLDATAKO BIZTANLERIA	923.300	2012ko III. HIRUHILEKOA	1.005.800
ALDI BATERAKO TASA (%)	12,3	2012ko III. HIRUHILEKOA	24,4
ALDI BATERAKO TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	13,9	2012ko II. HIRUHILEKOA	14,2
BIZTANLERIA LANGABETUA	203.900	2012ko III. HIRUHILEKOA	165.300
LANGABEZI TASA (%)	15,4	2012ko III. HIRUHILEKOA	12,1
LANGABEZI TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	12,2	2012ko II. HIRUHILEKOA	11,2
GAZTEEN LANGABEZI TASA (%)	39,8	2012ko III. HIRUHILEKOA	33,1
GAZTEEN LANGABEZI TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	22,5	2012ko II. HIRUHILEKOA	22,8
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA (%)	15,6	2012ko III. HIRUHILEKOA	12,8
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA 27-EB-an (%)	12,8	2012ko II. HIRUHILEKOA	12,8
SINATURIKO KONTRATUAK	739.127	2012ko URTARRILA-URRIA	792.111
KONTRATATU MUGAGABEAK	46.625	2012ko URTARRILA-URRIA	50.255
ENPLEGU ERREGULAZIOA			
ONARTURIKO FITXAK	2.597	2012ko URTARRILA-ABUZTUA	1.389
ERAGINDAKO LANGILEAK	47.220	2012ko URTARRILA-ABUZTUA	21.883
LAN ISTRIPUAK			
ISTRIPUAK GUZTIRA	34.012	2011KO URTARRILA-ABENDUA	38.111
HILDAKO PERTSONAK	78	2011KO URTARRILA-ABENDUA	80
ESKAINNTZA ETA ESKARIA			
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn (%ALD.)	-4,6	2012ko ABUZTUA	1,3
BPGd EAEn (%ALD.)	-1,3	2012ko III. HIRUHILEKOA	0,6
BPGd NAFARROAN (%ALD.)	-1,8	2012ko III. HIRUHILEKOA	1,4
BPGd ESPAINIAR ESTATUAN (%ALD.)	-1,6	2012ko III. HIRUHILEKOA	0,6
BPGd 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%ALD.)	-0,4	2012ko III. HIRUHILEKOA	1,4
PREZIOAK			
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN (% ALD.)	3,5	2012ko URRIA	3,0
URTEARTEKO KPIa 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%ALD.)	2,6	2012ko URRIA	3,4

* Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkie. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da. Lan istripuen ataleko datuak EAEkoak dira. Azterketa hau bukatzean ez dugu Nafarroako urteko datuak ezagutzeko aukerarik izan

** Enplegu eta langabeziko datuak, 16 eta 65 urte bitarteko adin tarteari dagozkie. Bestela, adin tartea zehaztuko da.

Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea, Eurostat, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, Instituto Navarro de Salud Laboral, Instituto Nacional de Empleo, Instituto Nacional de Estadística, ELAko Lan Osasun Alorra

2012/11/16ean eguneraturiko informazioarekin



Aurkibidea

EGOERAREN AZTERKETA

1. Bilakaera negatiboa eta BPGd-aren murrizketa4
2. Soldatapeko 80.200 enplegu gutxiago daude orain dela urte bat baino4
3. HEH hirugarrena da Europako langabezia-tasarik altueneko lurraldeen artean5
4. Aldi baterako kontratuak gero eta gehiago dira6
5. Enplegu erregulazioak ukitutako langileen kopuruak % 117,8 egin du gora urte batean7
6. Langabeen %45ek ez du inolako prestaziorik edo langabezia-saririk jasotzen.....7
7. Prezioen iguera.....8

ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPGd	Barne Produktu Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produktzio Industrialaren indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
NEI	Nafarroako Estatistika Institutua
EIN	Estatistika Institutu Nazionala
BJA	Biztanle Jardueraren Azterketa

EGOERAREN

A Z T E R K E T A

Sarrera

Egoera aztertzeko lan honetan, besteak beste, enpleguaren bilakaera eta langabeen babesik eza izan ditugu aztergai, bai eta ekonomia izaten ari den bilakaera negatiboa ere.

** Txosten hau 2012ko azaroaren 16an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da*

1. Bilakaera negatiboa eta BPGd-aren murrizketa

2012ko lehen hiru hiruhilekoetako Barne Produktu Gordinak (BPGd) beheranzko joera garbia erakutsi du. Bilakaera horren aurretik, urte arteko hazkunde-tasak gero eta txikiagoak izan dira, eta 2012an sartuta, hazkunde-tasak negatiboak dira (27-EBko lehen hiruhilekoa izan ezik).

Lurrelde lurrelde, Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAEren) BPGd-aren urte arteko murrizketa %1,3koa izan da 2012ko hirugarren hiruhilekoan. 2012ko bigarren hiruhilekoan, urte arteko aldaketa-tasa ere negatiboa izan zen (-%0,9) eta, aurretik, 2011ko lehen hiruhilekotik aurrera, beheranzko joera gertatu zen.

Nafarroako BPGd-aren datuek ere balore negatiboak agertzen dituzte; -%1,8, hain zuzen, 2012ko hirugarren hiruhilekoan, ahaztu gabe 2011ko hasieraz geroztiko bilakaera ere negatiboa izan zela.

2012ko hirugarren hiruhilekoko BPGd-a osagai osagai aztertzen badugu, ikusiko dugu etxeetako azken gastuak behera egin duela hala EAEn (-%0,9) nola Nafarroan (-%1,7); beherakada hori, ordea, txikiagoa izan da, administrazio publikoetako azken kontsumoaren jaitsiera baino, EAEn 3 puntu jaitsi baita iazko denboraldi berberaren aldean, eta Nafarroan, 4,2 puntu.


Sektoreen arabera, lehen sektorean bakarrik igo da BPGd-a (%6,8 EAEn, eta %1,7 Nafarroan). Zerbitzuen sektoreak ez du inolako igoerarik izan Nafarroan (%0,0) eta 0,5 puntu jaitsi da EAEn. Gainerako sektoreen urte arteko tasak ere negatiboak dira: industria, adibidez, 2,7 puntu jaitsi da EAEn, eta 6 Nafarroan; eta eraikuntza, bere aldetik, 5,7 puntu jaitsi da EAEn, eta 3,8 Nafarroan.

BPGd-a bi hiruhilekotan jarraian jaisteari esaten zaio atzeraldia, eta horixe gertatu da, hain zuzen ere, EAEn eta Nafarroan.

Espaniar Estatuaren hiruhilekoen arteko hazkunde-tasa ere negatiboa izan da; -%1,6, hain zuzen ere. Bilakaerak gero eta beheranzko joera nabarmenagoa agertzen du, duela urtebete BPGd-ak %0,6 egin baitzuen gora.

Europar, ekonomia %0,4 uzurtu zen, 2012ko hirugarren hiruhilekoan. Azken urte honetako bilakaerak ere beheranzko joera argia ere erakutsi du arlo honetan.

Merkatuko prezioen arabeko BPG, urte arteko hazkunde tasak (%). 27-EB. I-H/2008 – III-H/2012



Fuentes: Eurostat, Eustat, IEN, INE

2. Soldatapeko 80.200 enplegu gutxiago daude orain dela urte bat baino

INEren Biztanleria Aktiboaren Inkestako (BAI) datuek erakusten dute Hego Euskal Herriko jarduera-tasa % 74,9 izan dela 2012ko hirugarren hiruhilekoan, hau da, aurreko hiruhilekoan baino 0,5 puntu gutxiago, eta urtebete lehenago baino 0,8 puntu gutxiago. Biztanleriaren zer ehunekok duen enplegua neurtzen du jarduera-tasak, eta nor ari den aktiboki lan bila.

Sexuen arabera, gizonekoen jarduera-tasa % 80,6 izan da (0,3 puntu jaitsi da), eta emakumezkoena, berriz, % 69,2 (0,8 puntu jaitsi da).

27-EBn, tasa hori % 77,6 izan da 2012ko bigarren hiruhilekoan; hau da, 0,5 puntu igo da aurreko hiruhilekotik.

Lanean ari den biztanleria 1.117.300 lagunez osatua egon da 2012ko hirugarren hiruhilekoan; horrek esan nahi du 19.300 enplegu gutxiago direla aurreko hiruhilekoan baino. Enpleguen %53,2 gizonezkoen eskuetan zeuden (hau da, 9.800 gutxiago aurreko hiruhilekoan baino), eta



%46,8, emakumeen eskuetan (hots, 9.500 gutxiago orain dela hiru hilabete baino).

Biztanleria landuna sektoreen arabera aztertzen badugu, 22.300 lagun aritu dira lanean lehen sektorean (biztanleria landunaren %2, hain zuzen), 65.600 lagun eraikuntzan (%5,9), 246.400 lagun industrian (%22), eta 783.800 lagun, zerbitzuetan (%70,1).

Biztanleria landunaren urteko bilakaerari dagokionez, 79.300 lagunetan egin du behera, eta 1.196.600 izatetik 1.117.300 izatera igaro da. Lehen sektoreak bakarrik sortu du lana (3.200 enplegu gehiago); eraikuntzan, ordea, 19.800 enplegu ezabatu dira; industrian, 26.600 enplegu, eta zerbitzuetan, 36.100 enplegu suntsitu dira.

Soldatapeko biztanleria 920.900 lagunez osatua egon da, hau da, soldatapeko 24.100 enplegu gutxiago zeuden aurreko hiruhilekoan baino. Guztietatik, %51,1 (470.800 enplegu) gizonezkoak izan dira, eta %48,9 (450.100) emakumezkoak. Azken urtean, 80.200 enplegu galdu dira soldatapekoen artean.

Biztanleria langabea, bestalde, BAIn arabera, 203.900 lagunez osatua egon da 2012ko hirugarren hiruhilekoan, hiru hilean 1.800 lagunetan gora egin ondoren. Horrela, langabeen 108.400 langabe gizonezkoak dira (aurreko hiruhilekoan baino 1.600 gehiago), eta 95.500, emakumezkoak (200 gehiago). Azken urtebetean, langabe kopurua 38.600 lagunetan hazi da

BAIn arabeko langabezia-tasa %15,4 da hirugarren hiruhilekoan; emakumezkoen langabezia-tasa %15,6, eta gazteen artekoa, %39,8.

Europako langabezia-tasa %12,2 izan zen 2012ko bigarren hiruhilekoan (argitaratu den azkena); gazteen arteko langabezia-tasa %22,5 da, hau da, HEHkoa baino 17,3 puntu gutxiago, eta emakumeen langabezia-tasa %12,8 da (HEHn baino 5,3 puntu gutxiago).

3. HEH hirugarrena da Europako langabezia-tasarik altueneko lurraldeen artean

BAIn langabeei buruz emandako datuen ordez, Enplegu Zerbitzu Publikoaren zerrendetan izena emandakoen datuak hartzen baditugu, are okerragoak dira, langabe kopurua handiagoa baita.

2012ko urrian, izan ere, HEHn 219.071 langabe zeuden izena emanda; hau da, aurreko hilean baino 5.255 gehiago, eta 2011ko urrian baino 31.699 gehiago; horrek esan nahi du azken urteko igoera %16,9 izan dela.


Nafarroan 50.992 lagun zeuden izena emanda 2012ko urrian; 2011ko hil berean (44.771) baino %13,9 gehiago. EAEn ere gora egin du enplegu-zerbitzuetan izena emanda dauden langabeen kopuruak, 168.078 baitaude, hau da, duela urte bat baino %17,9 gehiago (2011ko urrian 142.601 zeuden).

Horrela, langabezia-tasa (Enplegu Zerbitzu Publikoak langabeei buruz emandako datuen arabera eta BAIn biztanleria aktiboaren datuen arabera kalkulaturik) %16,6 da Hego Euskal Herrian; hau da, duela urte bat baino 2,8 puntu gehiago (%13,8).

Europako batez bestekoarekin alderatuta, argi dago zer egoeratan dagoen langabezia HEHn. 2012ko irailean, izan ere, 27-EBko langabezia %10,6 izan da, bataz beste; hau da, HEHkoa baino 6 puntu gutxiago.

27-EB osatzen duten gainerako estatuekin alderatuta, Espainiar Estatuak (%25,8) eta Greziak (%25,1) bakarrik dute HEHk (%16,6) baino langabezia-tasa altuagoa; izan ere, Portugalek eta Irlandak, adibidez, langabezia-tasa txikiagoa dute (%15,7 eta %15,1, hurrenez hurren). Langabezia-tasarik txikieneko herrialdea Austria da (%4,4, hau da, HEHkoa baino 12,2 puntu txikiagoa); gero, Luxenburgo (%5,2, hau da, HEHkoa baino 11,4 puntu txikiagoa) eta Alemania (%5,4, hau da, 11,2 puntu gutxiago).

Langabezia-tasa lurraldeen arabera. 27-EB, 2012ko iraila



Iturria: Eurostat, BAI, EZP

4. Aldi baterako kontratuak gero eta gehiago dira

BAIren datuetara itzulita, behin-behinekotasun tasa %22 izan da 2012ko hirugarren hiruhilekoan. Gizonezkoen tasa %17,4 izan da, eta emakumezkoen arteko behin-behinekotasun tasa, berriz, %26,8. Gazteen arteko behin-behinekotasun tasa %70,3 izan da.

Behin-behinekotasun tasaren bilakaerari erreparatzen badiogu, ohartuko gara azken urtebetean 2,4 puntu jaitsi dela; hau da, 2011ko hirugarren hiruhilekoan %24,4 izan zen, eta 2012ko hiruhileko berean, aldiz, %22. Jaitsiera zor zaio aldi baterako kontratudunen artean enplegua ugari galdu izanari, ez baitzaie kontratua luzatu.

Gizonen arteko behin-behinekotasun tasa 3,9 puntu jaitsi da denboraldi berean (%21,3tik %17,4ra), eta emakumeen arteko behin-

behinekotasun tasa, berriz, 0,6 puntu (%27,4tik %26,8ra).

Gazteen arteko behin-behinekotasuna 1,5 puntu jaitsi da, 2011ko hirugarren hiruhilekoan %71,8 baitzen eta 2012ko hirugarren hiruhilekoan, berriz, %70,3. Hala ere, deigarria zaigu zenbat eta zenbat lanpostu galdu diren adin-tarte honetan, izugarria baita; izan ere, 2011n, 16 eta 24 urte arteko soldatapekoak 59.500 ziren, eta aldi baterako kontratatutakoak, berriz, 42.700; orain, aldiz, 2012ko hirugarren hiruhilekoan, adin-tarte horretako soldatapekoak 43.500 izan dira, eta behin-behinekoak, 30.600.

Behin-behinekotasunak 8,1 puntu handiagoa izaten jarraitzen du 27-EBko batez bestekoak baino, %3,9 baita. Europar Batasunean, aldi baterako kontratatuak dauden emakumezkoen kopurua %14,4 da (HEHn baino 12,4 puntu gutxiago), eta gazteen arteko behin-behinekotasun tasa %42 da (HEHn baino 28,3 puntu gutxiago).

2012ko urrira arte, 739.127 lan-kontratu sinatu ziren HEHn, eta haietatik %93,7 aldi baterakoak izan ziren.

Kontratazioak azken 5 urte honetan izan duen bilakaerari erreparatzen badiogu (hau da, krisia hasi zenetik hona), aldi baterako kontratuek 2,9 puntu egin dute gora 2008tik hona (2008an, aldi baterako kontratuak %90,8 izan baitziren, eta, 2012an, aldiz, lan-kontratu guztien %93,7).

Lan kontratuen bilakaera. HEH, 2008-2012

	Urria 2012	2011	2010	2009	2008
Kontratuak	739.127	944.872	924.588	874.649	1.061.684
Aldi baterako (%)	93,70	93,80	93	92,3	90,80

Iturria: Enplegu Zerbitzu Publikoa



5. Enplegu erregulazioak ukitutako langileen kopuruak % 117,8 egin du gora urte batean

2012ko irailera arte, enplegua erregulatzeko 2.597 espediente baimendu eta jakinarazi dira Hego Euskal Herrian; hau da, 2011ko denboraldi berean baino 1.208 gehiago, 1.389 espediente izan baitziren. Denboraldi horretan ukitutako langileak 47.220 izan dira 2012an, hau da, 2011n baino 25.337 gehiago (21.883 lagun sartu baitziren erregulazioan).

Izugarri handitu da hala enplegua erregulatzeko espedienteen kopurua nola espedienteek ukitutako langileen kopurua. Begi-bistakoa da enplegu-politikek eta lan-erreforma etengabeek eragin dutela espedienteek %87 gora egin izana, bai eta espedienteek ukitutako pertsonen kopurua %117,8 handitu izana ere.

Enplegua oraindik ere suntsitzen ari da. Krisia hasi zenean, aldi baterako kontratuak dituzten langileak jo zituen bereziki. Arestian emandako datuetan ikusi dugun bezala, gaur egun behin-behineko lana dutenei ere eragiten die gehienik krisiak, baina baita kontratu mugagabea dutenei ere.

Enplegua erregulatzeko espedienteek ukitu dituzten langileen %80,4 lana bertan behera uzteko neurriek eraginda sartu dira erregulazioan (37.953 lagun); %10,3, berriz, lanaldia murrizteko neurriek eraginda (4.879 lagun), eta %9,3, kontratua iraungitzeko neurriek eraginda (4.388 lagun).

Enplegua erregulatzeko espediente onetsiak eta HEHn ukitutako lagun kopurua (2011 eta 2012ko urtarrila eta abuztua)

	2011	2012
Espediente onetsiak	1.389	2.597
Ukitutako lagunak	21.883	47.220

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

6. Langabeen %45ek ez du inolako prestaziorik edo langabezia-saririk jasotzen

Aurreko atal batean aipatu dugu 219.071 langabe daudela izena emanda Hego Euskal Herriko enplegu zerbitzu publikoaren zerrendetan, 2012ko urrian.

Drama handi horri erantsi behar zaio ia erdiek ez dutela inolako langabezia-prestaziorik jasotzen. Zehazki, 2012ko irailean (argitaratu diren azken datuak baitira), langabezia izena emanda dauden 95.508 lagunek (hilabete horretako %45,2k) ez zuten inolako langabezia-prestaziorik jaso (ez laguntzarik, ez gizarteratzeko errenta aktiborik ere).

Langabeen %34k kotizaziopeko prestazio bat jaso dute, eta % 20,8k, berriz, laguntza bat edo gizarteratzeko errenta aktiboa (kotizaziopeko prestazioa baino txikiagoa).

Kontu honen bilakaera izugarria da, krisia 2008ko abuztuan hasi zenetik ia hirukoiztu egin baita langabeziarik kobratzen ez duten lagunen kopurua; zehazki, %184,8 igo da (33.536tik 95.508ra). Hurrengo taula honetan, urtez urteko igoera ageri da).

Prestaziorik gabeko langabeen bilakaera. HEH, 2008-2012

Noiz	Prestaziorik gabeko pertsonak
Abuztua 2008	33.536
Abendua 2008	45.810
Abendua 2009	51.562
Abendua 2010	65.364
Abendua 2011	79.059
Urria 2012	95.508


Iturria: Enplegu Zerbitzu Publikoa

7. Prezioen igoera

Espainiar estatuari dagokionez, urte arteko KPIa %3,5ekoa izan da 2012ko urrian, azken hilean 0,1 puntu igo eta ekainetik 1,6 puntu igo ondoren. 27-EBn, bestalde, igoera %2,6 izan da, eta esan behar da igoera konstante mantendu dela 2012an.

Ondoko grafikoan KPIk azken urtean izan duen bilakaera ageri da. Horrela, 2011ko urritik aurrera, prezioak estatuan baino gutxiago igo dira, baina 2012ko abuztutik aurrera, aldiz, alderantziz gertatu da.

KPIren urte arteko igoerak (%).
27-EB, espainiar Estatua, 2011-2012



Iturria: INE, Eurostat